



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko martxoaren 6an

17 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Lege Proiektuak:

- Bolondres lanari buruzko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako emendakinak (2. or.).
- Bolondres lanari buruzko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak baztertutako osoarekiko emendakina (27. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Ebazpena, Nafarroako Gobernua premiatzeko Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 29. artikulua aldatzeko prozedurari ekin diezaion. Osoko Bilkurak onetsia (28. or.).
- IPARLAT, SArri buruzko Ebazpena. Osoko Bilkurak onetsia (28. or.).
- Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzeko eskola-testuliburuaren doakotasunak ekarriko duen kostuari buruzko azterlana aurkez dezan. Osoko Bilkurak baztertua (29. or.).
- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalari atxikitzeko Adierazpen politikoaren berrespena (29. or.).
- Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatuz komunikazioa bidal diezaion Parlamentuari, gure Komunitatearen egoera politikoaren diagnostikoarekin. Foru Araubideko Batzordeak baztertua (30. or.).
- Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzeko Justizia Ministerioarekin beste hitzarmen bat negoziatzen dezan, soldadutzaren ordezkotzat zerbitzuari atxikitako jarduerari buruz. Gizarte Gaietako Batzordeak baztertua (30. or.).
- Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzeko Euskal Autonomi Erkidegoarekin Lankidetzaren Hitzarmen berria egin dezan. Atzera bidalitako mozioa (30. or.).
- Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzeko N-121 errepideko gasolindegia irekitzeko, Tafallako irtenbidea, belarri bat eraiki dezan. Atzera bidalitako mozioa (31. or.).
- Ebazpena, Nafarroako Gobernua premiatzeko farmazia-laguntzari buruzko Foru Lege proiektua bidal dezan. Osasun Batzordeak onetsia (31. or.).

H SAILA:

Bestelako Testu Arauemaileak:

- 5/1998 Foru Dekretua, urtarrilaren 19koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak berretsia (32.or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Bolondres lanari buruzko Foru Lege proiektua

AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128 artikuluan ezarritakoa betez, Bolondres lanari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu zaizkion emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu da. Proiektu hori 1997ko abenduaren 19ko 87 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

OSOAREKIKO EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Bolondres lanari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoarekiko emendakina, ordezeko testuduna.

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako gizarte partehartze-maila altua azaltzen ari da izaera oso desberdineko gizarte-beharrizanei bolondres-lan desinteresatuaren bitartez erantzun ahal izateko. Hori etengabe hedatzen ari den elkartasun-agerpen bat da.

Eztabaidaezina da hainbat entitate zerbitzuak ematen aritu dela gizarte-problema konpontzeko, Administrazioaren ekintza baino lehenagotik, aldi berean sentsibilizatzeko-lana ere eginez; bolondres-laneko gizarte-ekimen batean gauzatuz hasitako lan hori Administrazioak bere gain hartu du ondoren hainbat kasutan.

Bolondres-lanean gauzaturiko hiritarren partehartzea gobernuz kanpoko erakundeek bideratzen dute. Horiek, azken urteotan, erkidegoa eraiki eta gara dadin eta gizarte-aldaketa gerta dadin laguntzen ari dira, eta funtsezko eginkizuna betetzen dute beren arduragai diren problema ebazteari dagokionean; behartsuenekiko gizarte-konpromisoaren eredu bilakatu dira.

Gobernuz Kanpoko Erakundeek jardura beren elkartasunezko izaeran eta bolondresen ekintzan oinarritua dago, eta arduragai dituzten arloetan gero eta eginkizun espezializatuagoa betetzen ari dira. Interes orokorreko jarduerak eta bazterketaren eta kanpo uztearen aurkako borrokarako -horren kausa edozein dela ere- burutzen dituzten jarduerak ere, bolondres-lanaren laguntza-izaera gaindiaz diete, ekintza publikoaren ordezeko edo osagarri diren beste arlo batzuei aurre eginez, benetako aukera-berdintasunerantz aurrera doan gizartearen lortu ahal izateko.

Bolondres-lanean gauzaturiko borondatezko ekintzak eta hiritarren erantzunean politika publikoen taxutze eta burutzean ere parte hartu ahal izatea eskatzen du, bolondresen beren egitarauen garapen sarritan eraberritzaileari esker lortu duten ezagutza eta esperientzia ekarriz.

Zuzenbidezko gizarte estatu demokratikoan, eta Espainia hori izanik, askatasuna, justizia eta berdintasuna ordenamendu juridikoko balio gorenak dira. Gainera, botere publikoei dagokie beharrezkoak diren baldintzak sustatzea banakakoaren eta berau sartzeko den taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen; horien betetasuna galarazten edo zailtzen duten eragozpenak kentzea eta politika, ekonomia, kultura eta gizartearen arloan hiritar guztiek parte har dezaten erraztea. Konpromiso horrek bere barnean hartu behar du gizarte- eta ekonomia-aurrerapenerako eta errentaren banaketa bidezkoagorako baldintzak sustatzea.

Foru Lege honen bitartez, Nafarroako Foru Komunitateak, bere eskumenez baliatuz, hiritarrek beren interes eta motibazioei hobekien egokitzen zaizkien bideen bitartez parte hartzeko duten askatasuna bermatzen duen markoa ezartzen du, bolondres-lana sustatuz eta horri bultzada emanez, eta Nafarroako Administrazio Publikoaren laguntza bermatuz.

Halaber, Lege honek bolondresen eta horiek parte hartzen duteneko Erakundearen arteko harremanak arautzen ditu, eta horien ahalmena, eza-gutzak eta ardura publikokoak diren jarduketekiko betetzen duten funtzio osagarria aitortzen du.

Legeak aintzatetsi egiten du guztiek onarturiko kontzeptuen bidez definituriko bolondres-ekintza, duen izaera altruista eta elkartasunezkoa eta bere doakotasuna -ordainduriko zerbitzuak emateko edozein modutatik ezberdintzen duena- azpimarratuz; alderdien askatasuna aintzatesten du eta beharrezkoa den koordinazioa posible egiteko bitartekoak eskaintzen ditu. Kanpoan utzi ditu adiskidetzagatik edo ahaidetasun-lotura egoteagatik eginiko han-hemenkako jarduketak.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. Artikulua.- Helburua eta aplikazio-eremua.

1.- Foru Lege honen helburua hauex da: irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko zein pribatuetan hiritarrek bolondres-lanetan elkartasunez parte har dezaten sustatzea eta erraztea.

2.- Foru Lege honek Nafarroan jarduten duten bolondres-erakundeak arautzen ditu eta bolondresak, bolondres-entitateak eta Nafarroako Administrazio Publikoak harremanetan jartzeko bideak ezartzen ditu.

2. Artikulua.- Bolondres-lanaren kontzeptua.

1.- Foru Lege honen ondorioetarako, bolondres-lantzat hartuko da pertsona fisikoek buruturiko guztion intereseko jardueren multzoa, jarduera horiek, beti ere, lan-arloko, funtzionario-izaerako edo ordainduriko beste edozein harreman-motaren ondorioz egiten ez badira eta honako betekizun hauek betetzen baldin badituzte:

- a) Solidarioak eta altruistak izatea.
- b) Horiek askatasunez egitea, lan-arloko, funtzionario izaerako edo merkataritzako harreman baten, obligazio pertsonal baten edo betebeharr juridiko baten ondoriozkoak izan gabe.
- c) Erakunde pribatu edo publikoen bidez egin daitezela, eta egitarau edo proiektu zehatzei jarraituz.
- d) Kontraprestazio ekonomikorik gabe egin daitezela, borondatezko jarduera burutzeak sortarazten dituen gastuak berreskuratzeko eskubidearen kalterik gabe.

2.- Lege honen ondorioetarako, salbuetsita geratzen dira adiskidetzak, onginahi edo bizilagun-harreman onari dagozkien arrazoiengatik buruturi-

ko jarduerak eta irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatuetatik at egiten direnak.

3.- Bolondres-lanak ezin izango du inondik inora ere ordainduriko lana ordeztu.

4.- Soldadutzaren ordezkio zerbitzua dela-eta eginkoak ez dira inola ere bolondres-lantzat hartuko.

3. Artikulua.- Guztion intereseko jarduerak.

Aurreko artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, guztion intereseko jardueratzat joko dira gizartearen zein pertsonaren aldeko konpromiso bat dakartenak, honako eremuotan: gizartea, erki-degoa, zibikoa, kultura, garapenerako lankidetzak, ingurugiroaren defentsa, ekonomiaren edo ikerketaren defentsa, elkartegintza, bolondres-lanaren sustapena edo antzeko izaerako beste edozein.

4. Artikulua.- Jarduketarako printzipioak.

1.- Bolondres-lanaren jarduerak, eremu ezberdinetan, printzipio hauei jarraituz egingo dira: elkartasuna, bazterkeria-eza, aniztasuna, integrazioa, aurrea hartzea, gizarte-sentsibilizazioa eta, oro har, gizarte demokratiko, moderno eta parte-hartzaile batean bizikidetzak taxutzen duten guztiak.

2.- Bolondres-lanak egiten dituzten entitateek aukeratzeko askatasuna eta ekintzarako autonomia izango dute botere publikoekiko, eta indarreko legedia zein gizartearen aurrean hartzen duten erantzukizuna erabat errespetatuz jardun beharko dute.

II. TITULUA

Bolondres lana

I. KAPITULUA

Bolondresak

5. Artikulua.- Bolondresak: kontzeptua.

1.- Bolondres kontsideratuko dira 3. artikuluan aipaturiko jarduerak egiteko konpromisoa libreki hartzen duten pertsona fisikoak, Foru Lege honetako 2. artikuluan agertzen diren baldintzetan.

2.- Bolondresak bere zerbitzuak ematen ditueneko erakundearekin duen harremanak elkarrekin eskubide eta betebeharr batzuk sortzen ditu, eta horiek, oinarri nagusiei dagokienez behintzat, Foru Lege honetako 8.3 artikulua aipatzen duen barne Estatutuan araututa daude.

3.- Bolondres izatea bateragarria izango da erakunde bereko bazkide izatearekin. Erakunde batean eginkizunak profesional gisa betetzen

dituzten pertsonak bolondres gisa ezin izango dituzte inola ere eginkizun horiek berak bete.

6. Artikulua.- Bolondresen eskubideak.

Bolondres entitateetan sartzen diren bolondresen eskubide hauek dituzte:

1. Pertsonari berari dagozkionak:

a) Bolondres lanetan onartuak izatea eta jardueretan inolako bereizkeriarik gabe tratatuak izatea, askatasuna, intimitatea eta sinesmenak errespetaturik.

b) Entitatearen antolamenduan kemenez parte hartzea, egitarauen prestakuntza, diseinu, exekuzio eta ebaluazioarekin lagunduz, bere lehentasun eta gaitasunen arabera, aplikatzeko estatutu edo arauak errespetatuz.

c) Entitatearen helburu eta izaerarekin zerikusirik ez duten eginkizunik manatuak ez izatea.

d) Justifikatzen duten zioak daudenean, entitatearen ahalbideen arabera, manaturiko egitarauaren aldaketa lortzea.

e) Lankidetzaren gizarte balioagatik errespetua eta eskerrona lortzea eta egitarauetan parte hartu duela frogatzen duen ziurtagiria jasotzea.

f) Bolondres izateari askatasun osoz uztea.

2. Informazioari eta prestakuntzari dagokienez:

a) Parte hartzen duteneko entitatearen helburu, antolamendu, funtzionamendu eta egoera ekonomikoaz informatuak izatea.

b) Manatzen zaizkien eginkizunetan aritzeko prestatuak, orientatuak eta lagunduak izatea, garatzen duten bolondres lana eten gabe hobetzea lortzeko.

3. Gauzakiei dagokienez:

a) Beren lanean behar bezalako segurtasun eta higie-ne egoeran aritzea, haren izaera eta ezaugarrien arabera.

b) Bolondres lanaren zuzeneko ondorioak diren istripu eta gaisotasun arriskuen kontra aseratuak izatea, ezartzen diren ezaugarriekin eta ezartzen diren kapital aseratueta.

c) Manaturiko eginkizunean aritzeko behar dituzten gauzak baliabideez hornituak izatea.

d) Beren lanean aritzeko behar duten nortasun agiria lortzea eta agintariekin eta, oro har, gizariek hala aitortuak izatea.

e) Bolondres gisa beren lankidetzaren eskaintzen duteneko erakundeek ekitaldietan askatasunez sartzea.

f) Beren lanetan izaniko gastuak ordainduak izatea, baldin eta bolondresaren eta erakundearen artean adosturiko baldintzetan horrelakorik ezarri bada, eta hitzarmen horren muga barnean.

7. Artikulua.- Bolondresen eginbeharrak.

Bolondres entitateetako kide diren bolondresen eginbehar hauek dituzte:

a) Beren zerbitzuak beren jardueraren xede diren pertsonen inolako bereizkeriarik gabe egitea, haien duintasuna, askatasuna, intimitatea eta sinesmenak errespetatuz.

b) Beren lana ahalik eta hobekien egitea, erakundearen sartzeko harturiko konpromisoari atxikiz, haren helburu, xede eta arauteria eta hartzen dituzten jarraibideak onartuz, erakundearen ikurrak eta agiriak behar bezala erabiltzea, eta erakundeak haien eskura jartzen dituen gauzak baliabideak errespetatzea.

c) Bolondres lanean hartu eta ezaguturiko informazioaren isilpekotasuna gordetzea.

d) Beren lanagatik edozein gauzak sariri uko egitea.

e) Proposatzen zaie prestakuntza kemenez parte hartzea, bolondres lanaren kalitatea hobetuko badu.

II. KAPITULUA

Bolondresen eta horiek sartzen diren erakundeek arteko harremanak

8. Artikulua.- Erakundeak.

1.- Bolondresak dituzten erakundeek, euren forma juridikoa edozein delarik ere, legearen arabera eratuak beharko dute izan, nortasun juridiko bereiztuarekin, irabazi-asmerik gabe, behar bezala erregistratuak eta 3. artikuluan definituriko guztion intereseko jardueren multzoan koka daitezkeen egitarauak aurrera eraman beharko dituzte.

2.- Bolondres Erakunde deituko zaie aurreko baldintzak betetzeaz gain nagusiki bolondresen osatuak diren eta ekintza-egitarau gehienak bolondresen bidez burutzen dituztenei.

Bolondresak erakundeetan sartzea idatziz formalizatuko da, behar den akordio edo konpromisoa harturik, harremana altruista dela ezartzeaz gain, eduki hau ere izango duena: eginkizunak, jarduerak, lanaldia eta bi alderdiekin egoki jotzen duten guztia, Foru Lege honetako bermeak babestu ahal izateko.

3.- Beti ere, erakundeek honako betebehar hauek izango dituzte:

a) Bolondres-lanaren barne estatutu bat egi-tea, eta horretan gutxienez bolondresak onartzeko eta baztertzeko irizpideak eta euren eskubide eta betebeharrak adierazi beharko dira, Foru Lege honetan xedaturikoa errespetatuz.

Halaber, bolondresen alta eta baje erregist-roa eduki beharko du.

b) Bolondresen prestakuntza, informazioa, par-tehartzeara eta lankidetzara bermatzeko beharrezko-ak diren bideak zehaztea, bai erakundean bai bolondresen partehartzeara duten proiektu eta egi-tarauetan.

c) Beren eginkizunak behar bezala burutzeko laguntza eta bitarteko egokiak eskaintzea.

d) Aseguru-poliza bat izenpetzea, bolondresei estaldura bermatuko diena jarduerako ekintzak burutzean hirugarrenei sor lekizkiekeen kalte eta galerei aurre egiteko. Aseguru horrek erregela-mendu bidez ezartzen diren ezaugarriak eta kapi-talak izango ditu.

e) Behar bezalako segurtasun eta higiene bal-dintzak bermatzea, bolondres-lana gauzatzean buruturiko jarduera zehatzaren arabera.

f) Bolondres gisa emaniko zerbitzuak frogatzen dituen ziurtagiria luzatzea.

g) Erakundeari batzeko akordioan bolondrese-kin harturiko konpromisoak betetzea.

h) Euren jardueran izandako gastuak direla-eta dirua itzul dakiela, beti ere hala ezarri baldin bada bolondresak eta erakundeak hitzarturiko baldin-tzetan, eta hitzarmen horrek aurreikusiriko muge-n barnean.

4.- Erakundeek honako eskubide hauek izango dituzte:

a) Bolondresak eginkizunen arabera hauta-tzea.

b) Euren bolondres-lanarekin zerikusia duten eta beharrezkoak diren informazio eta orientabi-dea Administrazioari eskatzea eta berarengandik lortzea.

c) Bolondres-lana sustatzeko administrazio-ekintzetan aurreikusiriko neurrietan parte hartzea.

III. TITULUA

Administrazioaren eta bolondresak dituzten erakundearen arteko harremanak

9. Artikulua.- Administrazioen eta Erakundearen arteko harremanak arautzen dituzten Printzipioak.

1.- Administrazioen eta Erakundearen arteko harremanak lankidetzara, osagarritasun eta parte-

hartze printzipioek arautuko dituzte. Administra-zioaren jarduketak beti ere antolamendu eta eki-menerako bolondresen autonomia babestu behar-ko du.

2.- Administrazio publiko ezberdinen eta era-kundeen arteko lankidetzara, lehentasunez, bera-riazko hitzarmenen bidez instrumentatuko da.

10. Artikulua.- Nafarroako Gobernuaren esku-menak.

Gizarte Ongizate Departamentuaren bidez, Nafarroako Gobernuak honako eginkizun hauek burutuko ditu:

a) Bolondresen Errolda Nagusia kudeatu eta antolatzea.

b) Bolondres-baliabideen katalogo publiko bat prestatzea, Foru Komunitatearen esparruan buru-tzen diren egitarau ezberdinen edukiak osatuko dituen.

c) Bolondres-lanari buruzko dokumentu-fondo bat eta datu-base bat sortzea dauden fondo ezberdinak koordinatzeko.

d) Bolondres-laneko proiektu zehatz bati ekiten dioten erakundeek eskaturiko aholkularitza tekni-koa eta beharrezko duten laguntza ematea.

e) Akreditazioa duten entitateen estatutuetako klausulak Foru Lege honen edukiarekin bat etor daitezen begiratzea.

11. Artikulua.- Bolondres Erakundearen Errolda Nagusia.

1.- Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizateko Departamentuan Bolondres Erakundearen Errolda Nagusia eratzen da. Errolda horretan izena eman ahal izango dute 8. artikulua aipatzen dituen Era-kundeek, Foru Komunitatearen esparruan jardue-rak programatu edo burutzen dituztenean.

2.- Gainera, Bolondres Erakundearen Errolda Nagusia Nafarroako Administrazio Publikoetako beste erregistro eta erroldetan agertzen diren ins-kripzioek ere osatuko dute, erakunde-mota berari buruzkoak direnean. Horretarako, erregistro eta errolda horien arduradunek aldizka egoki diren jakinarazpenak egingo dituzte.

3.- Errolda hau publikoa izango da, eta horren kopia bat emango zaie Bolondres Erakundeei, hala eskatzen baldin badute.

4.- Inskripzioetan haxe agertuko da: Erakun-dearen izena, helbidea, jarduketa-eremua, helbu-ru orokorrak, jarduerak eta horretan parte hartzen duten bolondresen kopurua.

IV. TITULUA

Bolondres lanaren sustapena

12. Artikulua.- Sustapenerako neurri orokorrak.

Bolondres-lana sustatu eta errazteko helburuarekin, Nafarroako Administrazio Publikoek, besteak beste, honako jarduketak hauek sustatuko dituzte, euren eskumen-eremuaren barnean eta euren aurrekontu-erabilgarritasunaren arabera:

a) Bolondresak dituzten Erakundearen artean baliabideak eta bitartekoak elkarren eskura jartzeari, bereziki prestakuntza eta informazio-bilketari dagokienean.

b) Oro har, antolaturiko bolondres-lana indartzeko xedea duten neurriak. Arreta berezia eskainiko zaie erakundearen arteko lankidetzaren proposatzen duten ekintzei, sektore-mailako eta esparru bakarrean eginiko lana gaindituz, ekintza horiek lurraldearekiko eta udalerriarekiko lotura dutenean.

c) Urtero, indarrean dagoen Dirulaguntzei buruzko Foru Legeari jarraituz, dirulaguntzetarako deialdiak egitea, deialdi horiei Foru Lege honek eskatzen dituen betekizun zehatzak erantsiz.

d) Bolondres-lanari buruzko ikerketak, azterlanak eta argitalpenak egitea.

e) Erakundeei informazio, dokumentazio, aholkularitza eta laguntza teknikoko zerbitzuak eskaintzea.

f) Bolondres-lana eta berorren baloreak ezagutarazteko informazio- eta berriemate-kanpainak antolatzea, eta, horrekin batera, bolondres-lanaren mezua komunikabideek jasotzen dutela eta bolondresak eginiko lana, oro har, guztiek ezagutzen dutela bermatzea.

g) Laneguna murriztera edo egokitza bideraturiko neurriak, borondatezko zerbitzuak eman ahal izateko.

h) Borondatezko ekintza garatu ahal izan dadin legezko, laneko eta zergen marko egokia bultzatzea.

13. Artikulua.- Onura publikoari buruzko deklarazioa.

8.2 artikulua aipatzen dituen bolondres-erakundeak onura publikokoak deklaratu ahal izango dira, beren forma juridikoak arautzen dituen berriazko legediak aurreikusten duen moduan.

V. TITULUA

Bolondresen partehartzea

14. Artikulua.- Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseilua.

Gizarteari eta bere erakundeei elkartasun-politiken berri emateko asmoz, Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseilua eratzen da, bolondres-lanaren arloan topagune eta aholkularitzarako eta kontsultarako erakunde gisa, eta Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizateko Departamentuari atxikirik egongo da.

15. Artikulua.- Eginkizunak.

Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseiluak honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Txostena ematea, derrigorrez, bolondres-lanean eragin zuzena duten izaera orokorreko arauzko xedapenen aurreproiektu eta proiektuei buruz. Eskatzen denetik hamabost eguneko epean eman beharko da txosten hori.

b) Administrazio Publikoaren proposamenak aztertzea, eta horri bolondres-lana sustatzeko neurriei buruzko beste batzuk proposatzea.

c) Nafarroako Administrazio Publikoari aholkuak ematea eta horiei bolondres-lanaren esparru ezberdinei buruzko proposamen eta ekimenak bidaltzea.

d) Bolondres-laneko egitarauaren jarraipen eta ebaluazioari buruzko informazioa jasotzea, baita emandako dirulaguntzei buruzkoa ere.

e) Urtero txosten bat igortzea Foru Komunitateko bolondres-lanaren egoerari buruz.

f) Kontseiluaren Funtzionamendurako Errege-lamendua Nafarroako Gobernuari proposatzea.

g) Bere jardueren urteroko oroit-idazkia onestea.

16. Artikulua.- Osaketa.

1.- Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseilua honela osatua egongo da:

a) Lehendakaria.- Gizarte Ongizateko Departamentuko kontseilari den pertsona.

b) Lehendakariordetza.- Bolondres-erakundeak ordezkatzeko dituzten pertsonen artean egongo da izendapena. Eginkizunak erregulamendu bidez zehazten direnak izango dira.

c) Kontseilukide-karguak:

– Nafarroako Gobernuaren bost ordezkari, Zuzendari Nagusi mailakoak, Departamentu hauetatik datozenak: Gizarte Ongizatea, Osasu-

na, Hezkuntza eta Kultura, Barnea eta Ingurugiroa.

– Udalen hiru ordezkari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak izendatuak.

– Erakundeek zazpi ordezkari, Bolondresen Errolda Nagusia inskribaturik dauden erakundeek artetik hautatu behar direnak, erregelamendu bidez zehaztuko den eta erakunderik txikiak ere egotea ahalbidetuko duen sistema baten bidez.

d) Idazkaritza.- Lehendakaritza duenak izendatuko duen eta Gizarte Ongizateko Departamentuari atxikitako legegari batek beteko du postu hau.

2.- Kontseilua osatzen duten pertsonak euren ordezkagarritasunaren arabera hautatuak dira, eta hiru urteko agintaldia izango dute, behin bakarrik berriro ahal izango dutena. Izendatu zituen organoak agintaldia amaitu aurretik kargutik kendu ahal izango ditu.

3.- Aztergai den arloan adituak diren pertsonak ere Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseiluaren bilkuretarako joan ahal izango dute, informazioa edo aholkuak emateko, soilik.

Xedapen iragankorrak

Lehenengoa.- Nafarroako Gobernuak Bolondresen Errolda Nagusia arautu arte, erakundeek inskribatzen segituko dute arloan eskumena duten departamentuen menpeko erregistroetan.

Bigarrena.- Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseiluak, gehienez ere Foru Lege hau indarrean sartzen denetik kontatuz urtebeteko epean, Kontseiluaren beraren barne funtzionamendurako erregelamendua onetsiko du.

Hirugarrena.- Erakundeak Foru Lege honen edukiei egokitzeko epea urtebetekoa izango da, Lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

Laugarrena.- Lege honetako 16.1.c artikuluan aurreikusitako hautaketa-prozesua onetsi bitartean, erakundeek ordezkaritza Nafarroako Gobernuak zehaztuko du.

Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

ARTIKULUEI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

1. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko emendakina. Honela geldituko da:

1. artikulua: Foru Lege honen xedea herritarak bolondres lanetan parte hartzea bultzatzea da, kemenez, askatasunez, elkartasunez, altruismoz eta erantzukizunez, eta bolondresen, bolondres entitateen eta Nafarroako Administrazio Publikoen artean harremanak ezartzea.

Zioak: egokiago iruditzen zaigu artikulua berriz zehaztea, eta baita proposatutako hurrengoa ere.

2. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko emendakina.

“Foru Lege honen xedea...” ren ondoren, lerroaldearen gainerakoa ondoko testuak ordeztuko du: marko juridikoa ematea da, bolondresen esku-bide eta betebeharrak babestuko dituen, eta halaber bolondresen jardura inspiratu behar duten printzipioak ezarriko ditu. Bolondresen berrikuntzarako ahalmena sustatzea eta bultzatzea, eta baita irabazi asmorik gabeko erakundeena ere, hain zuzen, jardura sozialaren alor guztietan eta Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan lan jarraitua egiten dutenena. Bolondresei zein erakundeei harreman errazak bermatu Nafarroako instituzio publikoekin, eta horrek balio izan dezala herritarren partehartze kementsu, libre, elkartasunezko eta erantzukizunezkoa suspertzeko eta gizarte partehartzaile, gizatasunezko eta abagintzagoa eraikitzeko.

Zioak: egokiagoa iruditzen zaigu marko juridiko batekin hastea; horren bidez kokatu egiten dira bolondres lana, erakundeak eta instituzioak, eta horrela, integrazio prozesu horretan bolondres lana bultzatzera heldu arte. Legeak berak ez du bolondres lanik bultzatuko; izatekotan lan hori antolatu egingo du.

3. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikulua aldatzeko emendakina. Honela geldituko da:

1. artikulua. 1.-Honako Foru Lege honen xedea hauxe da: herritarren elkartasunezko parte-hartzea sustatzea eta erraztea bolondres lan jardueretan, irabazi asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatuen barnean.

2.- Honako Foru Lege honek bolondres lanerako erakundeak arautzen ditu, hain zuzen ere beren jarduerak Nafarroan egiten dituztenak; eta bideak ezartzen ditu, bolondresak, bolondres lanerako entitateak eta Nafarroako administrazio publikoek harremanak izateko.

Zioak: argitasuna eta koherentzia.

4. EMENDAKINA**MARTIN LANDA MARCO****FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA**

1. artikuluari aurkezturiko emendakina, gehitzekoa.

Ondokoa proposatzen da: "erakundeen" hitzaren ondoren "demokratiko" jartzea. Beraz, honela geldituko litzateke: ...irabazteko asmorik gabeko erakunde demokratikoen bidez... (gainerakoa berdin).

Zioak: haien funtzionatzeko moduak demokratikoa izan beharko duela zehaztea.

**2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK****5. EMENDAKINA****BEGOÑA ERRAZTI ESNAL****FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA**

2. artikulua berri bat jartzeko emendakina.

Lege honen aplikazio eremua beren egoitza soziala Nafarroako Foru Komunitatean duten erakundeetara mugatua dago

Zioak: Egokiago dirudi erakundeak egoitza soziala duten komunitatera mugatzea. Beren jarduerak ez dira beti lurraldean izaten. Bistakoa da hori garapenerako lankidetzako erakundeetan.

6. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuaren 2. artikulua 3. idatzia kentzeko emendakina.

7. EMENDAKINA**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

1. kapituluko 2. artikulua aldatzeko emendakina.

2. artikulua ordez honela dioen beste bat jarri: Foru Lege honen ondorioetarako, bolondres lantzat joko dira modu altruista, libre eta ordain ekonomiko gabe eginiko jardura sozial guztiak, irabazi asmorik gabeko erakunde sozialetan eginak, hortxe egiten baita bolondres lana gure komunitateko pertsonen zerbitzura.

Zioak: "IU/EB de Navarra"rentzat, bolondres lana ez da jokabide soziala, baizik eta jardura sozial konkretu bat elkartasunaren erabilera librean.

8. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikulua aldatzeko emendakina. Honela geldituko da:

2. 1.- Foru Lege honen ondorioetarako, bolondres lantzat joko dira interes orokorra duen jardura multzoa, pertsona fisikoek aurrera eramana, baldin eta jardura horiek ez badira ondokoei jarraiki egiten: lan harremana, funtzionario harremana, edo ordaindutako beste edozein; eta baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Izaera solidarioa eta altruista izan dezatela.

b) Bolondres lan hori modu librean egin dadila; ez dezala ondoko hauetan jatorririk izan: lan harremana, funtzionario harremana edo merkataritza-harremana, norbere betebeharra edo behar juridikoa.

c) Erakunde pribatu eta publikoen bidez eraman daitezela aurrera, eta programa edo proiektu zehatzei jarraiki.

d) Ordain ekonomikorik gabe eraman daitezela aurrera, bolondres jarduerak eragin ditzakeen gastuen itzulketa galarazi gabe.

2.- Lege honetatik kanpo geldituko dira ondoko arrazoiengatik egiten diren jarduerak: adiskidetasuna, onginahia, auzotasun ona; eta baita irabazi asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatuetatik kanpo egiten direnak ere.

3.- Bolondres lanak ezingo du inondik inora ordaintutako lana ordezkatu.

4.- Ez da inondik inora bolondres lana izango ordezko gizarte-prestazioren ondorioz egiten dena.

Zioak: argitasuna eta koherentzia.

9. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

2. artikularen 1. idazatia aldatzeko emendakina.

1. Foru Lege honen ondorioetarako, bolondres lantzat jotzen da askatasunez eta altruismoz, gizakien arteko elkartasuna edo/eta interes orokorreko jarduerak garatzea xede dutela, pertsonen edo komunitateari zerbitzuak emateko, irabazteko asmorik gabeko entitateetan antolatzen diren pertsonen gizarte portaera.

Zioak: proiektu honen ondorengo artikuluetan agertzen denaren arabera badira interes orokorreko beste jarduera batzuk, eta ez bakarrik pertsonen ematen zaizkien zerbitzuak.

10. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

2. artikuluko 1. idazatiari aurkezturiko emendakina, gehitzekoa.

Hauxe proposatzen da: "entitateetan" hitzaren ondoren "egonkor" eta "demokratiko" jartzea. Beraz, honela geldituko litzateke: ...irabazteko asmorik gabeko entitate egonkor eta demokratikotan antolatzen diren...

Zioak: modu egonkor eta demokratikoan funtzionatu behar dutela zehaztu.

11. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

2. artikuluari aurkezturiko emendakina, 4. idazatia gehitzeko.

4. Ez dira inondik inora bolondres lantzat joko ordezko gizarte-prestazioren ondorioz eginiko jarduerak.

Zioak: talde hau Gizarte-Prestazioari buruzko Legeak arautzen du, baina ukituak gertatzeko arriskua egon liteke. Gure ustez, erabat kasu ezberdinak dira, eta beraz, behar bezala ezberdindu behar dira.

12. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

Artikulu berri bat gehitzeko emendakina (3. zenbakia izango du).

Interes orokorreko jarduerak dira gizartearen edo pertsonen aldeko konpromisoa dakartenak, bai gizarte alorrean, bai komunitatearenean, bai herritarren alorrean ere, edo beste alor batzuetan, hala nola kulturean, garapenerako lankidetzan, ingurugiroaren zainketan edo antzeko izaera duen beste batzuetan.

Zioak: bolondres lan izan daitezkeenak hobeki zehaztea.

13. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu berri bat gehitzeko emendakina, 2. eta 3. artikuluen artean. Artikulu honek zehaztu egingo ditu bolondres lanaren jarduera-printzipioak alderdi oinarritzkoenak azpimarratuz eta hasierako testuaren hoztasuna zuzenduz.

2. bis artikulua.

Ondokoak dira bolondres lanaren oinarritzko printzipioak:

a) Askatasuna, gizartearekin konpromisoa hartzeko aukera pertsonal gisa, beti ere uste sendoak eta sinesmenak errespetatzen direlarik, bai bolondresarenak, bai ekintzaren onura jasotzen duenarenak;

b) Beste pertsona edo taldeekin elkartasuna, hori besteen aldeko ekintza bihurtzen denean, edota gizarte-interes kolektibo bihurtzen denean;

c) Partehartzea, hain zuzen, komunitateak dituen arduretan eskuhartze aktibo eta zuzena izateko printzipio demokratiko gisa;

d) Ematen den zerbitzuaren doakotasuna, inongo etekin materialik bilatu gabe;

e) Autonomia botere publikoekiko;

f) Ardura, laguntza denboran zehar eutsia izan dadin, etorkizun egonkor eta zehatz batekin, eta betiere, emaitzak modu iraunkorrean ebaluatuta;

eta orokorrean, gizarte demokratiko, ireki, moderno eta partehartzaile batean elkarbizitza inspiratzen duten guztiak.

3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

14. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko emendakina. Honela geldituko da:

3. artikulua.- Aurreko artikuluan ezarritakoaren ondoretarako, interes orokorreko jardueratzat hartuko dira gizartearen edo pertsonen aldeko konpromisoa dakartenak, bai gizarte alorrean, bai komunitatearenean, bai herritarren alorrean ere, edo beste alor batzuetan, hala nola kulturean, garapenerako lankidetzan, ingurugiroaren zainketan edo antzeko izaera duen beste batzuetan.

Zioak: argitasuna eta koherentzia.

15. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1. Kapituluko 3. artikulua aldatzeko emendakina.

Bolondrestzat hartzen da... ren ondoren, lerroaldearen gainerakoa ondoko testuak ordeztuko du: aurreko artikuluan definitutako kontzeptuari jarraiki bolondres lana egiteko eskubidea duen pertsona fisiko oro.

Zioak: aurreko artikuluari aurkezturiko emendekin bat datorrelako.

16. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

3. artikuluari aurkeztutako emendakina, gehitzea.

Hauxe proposatzen da: "erakunde" hitzaren ondoren "egonkor eta demokratiko" jartzea. Beraz, honela geldituko litzateke: Bolondrestzat hartzen da herritarrendako eta gizartearendako jarduerak egiteko irabazteko asmorik gabeko erakunde egonkor eta demokratiko batean sartzen den pertsona fisiko oro. Jarduera horiek aurreko artikuluan zehazten den bolondres lanaren kontzeptuaren barruan egon behar dute.

Zioak: modu egonkor eta demokratikoan funtzionatu behar dutela zehaztu.

4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

17. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua ordez ondokoak jarri:

4. artikulua. 1.- Bolondres-lanaren jarduerak, eremu ezberdinetan, printzipio hauei jarraituz egingo dira: elkartasuna, bazterkeria-eza, aniztasuna, integrazioa, aurea hartzea, gizarte-sentsibilizazioa eta, oro har, gizarte demokratiko, moderno eta partehartzaile batean bizikidetzatza taxutzen duten guztiak.

2.- Bolondres-lanak egiten dituzten entitateek aukeratzeko askatasuna eta ekintzarako autonomia izango dute botere publikoekiko, eta indarreko legedia zein gizartearen aurrean hartzen duten erantzukizuna erabat errespetatuz jardun beharko dute.

4. bis artikulua. 1.- Bolondres kontsideratuko dira 3. artikuluan aipaturiko jarduerak egiteko konpromisoa libreki hartzen duten pertsona fisikoak, Foru Lege honetako 2. artikuluan agertzen diren baldintzetan.

2.- Bolondresak bere zerbitzuak ematen ditueneko erakundearekin duen harremanak elkarreki-ko eskubide eta betebeharrak batzuk sortzen ditu,

eta horiek, oinarri nagusiei dagokienean behintzat, Foru Lege honetako 8.3 artikulua aipatzen duen barne Estatutuan araututa daude.

3.- Bolondres izatea bateragarria izango da erakunde bereko bazkide izatearekin. Erakunde batean eginkizunak profesional gisa betetzen dituzten pertsonak bolondres gisa ezin izango dituzte inola ere eginkizun horiek berak bete.

Zioak: argitasuna eta koherentzia.

18. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

4. artikuluari aurkezturiko emendakina, 2 bis idazatia gehitzea.

Honela dioen 2 bis idazatia gehitzea proposatzen da.

2 bis) Bereziki sustatu eta lagundu bolondresen berrikuntzarako ahalmena eta berez jarduteko ahalmena, gizarte partehartzaile, gizalegezko eta abegitsuagoa eraikitzeko.

Zioak: bolondres lanak partehartzerako duen balioa azpimarratu elkartasun handiagoko gizarte lortzeko.

5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

19. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua ordez ondokoa jarri:

5. artikulua.- Bolondres entitateetan sartzen diren bolondresen eskubide hauek dituzte:

1. Pertsonari berari dagozkionak:

a) Bolondres lanetan onartuak izatea eta jardueretan inolako bereizkeriarik gabe tratatuak izatea, askatasuna, intimitatea eta sinesmenak errespetaturik.

b) Entitatearen antolamenduan kemenez parte hartzea, egitarauaren prestakuntza, diseinu, exekuzio eta ebaluazioarekin lagunduz, bere lehentasun eta gaitasunen arabera, aplikatzeko estatutu edo arauak errespetatuz.

c) Entitatearen helburu eta izaerarekin zerikusirik ez duten eginkizunik manatuak ez izatea.

d) Justifikatzen duten zioak daudenean, entitatearen ahalbideen arabera, manaturiko egitarauaren aldaketa lortzea.

e) Lankidetzaren gizarte balioagatik errespetua eta eskerrona lortzea eta egitarauetan parte hartu duela frogatzen duen ziurtagiria jasotzea.

f) Bolondres izateari askatasun osoz uztea.

2. Informazioari eta prestakuntzari dagokienez:

a) Parte hartzen duteneko entitatearen helburu, antolamendu, funtzionamendu eta egoera ekonomikoaz informatuak izatea.

b) Manatzen zaizkien eginkizunetan aritzeko prestatuak, orientatuak eta lagunduak izatea, garatzen duten bolondres lana eten gabe hobetzea lortzeko.

3. Gauzakiei dagokienez:

a) Beren lanean behar bezalako segurtasun eta higiene egoeran aritzea, haren izaera eta ezaugarrien arabera.

b) Bolondres lanaren zuzeneko ondorioak diren istripu eta gaisotasun arriskuaren kontra aseguruak izatea, ezartzen diren ezaugarriekin eta ezartzen diren kapital aseguruarekin.

c) Manaturiko eginkizunetan aritzeko behar dituzten gauzak baliabideez hornituak izatea.

d) Beren lanean aritzeko behar duten nortasun agiria lortzea eta agintariek eta, oro har, gizarteak hala aitortuak izatea.

e) Bolondres gisa beren lankidetzaren eskaintzen duteneko erakundearen ekitaldietan askatasunez sartzea.

f) Beren lanetan izaniko gastuak ordainduak izatea, baldin eta bolondresaren eta erakundearen artean adosturiko baldintzetan horrelakorik ezarri bada, eta hitzarmen horren muga barnean.

Zioak: argitasuna eta koherentzia.

20. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

II. kapituluko 5. artikuluko 3. puntuko b) idaztatia aldatzeko emendakina.

“...arriskuen kontra aseguratuak izatea” utzi, eta beste guztia aldatu. honela geldituko litzateke:

Bolondres lanaren zuzeneko ondorioak diren istripu arriskuen kontra aseguratuak izatea, erregelamenduan ezarriko denaren arabera. Aseguruen kostuek bolondres lanerako erakundeen ahalmen ekonomikoa gainditzen dutenean jarduerara eta egitarau koste gisa izango dira onartuak eta instituzio publikoen laguntza jasoko dute.

Zioak: gutxienez hobe zehaztu dezala, osasun publikoak, orokorki, gaisotasunak bere gain hartzen baititu, eta bestalde, zenbait erakundek ezin go dituzte bere gain hartu lege honek eskatzen dituen aseguruen kostu ekonomiko osoa, eta bidezkoa da mekanismoak jartzea eskatu den hori bete ahal izateko.

21. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

II. kapituluko 5. artikuluko 3. puntuko f) idazatia kentzeko emendakina.

f) idazatia kendu.

Zioak: zenbait elkarte lege honetan diru-itzultzeak agertzearen aurka azaladu dira, bolondresek bere lana askatasunez eta elkartasunez egiten dutela ulertzen baitute, ez bakarrik beren denbora eta ezagupenei dagokionean, baita beren gaitasun eta prest egoteari dagokionean ere. Elkarte batzuk azaldu ere azaldu dute kostuak ordaintzea ezkutuko konpentsazio ekonomikoak egiteko modua ere izan daitekeela.

6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

22. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua. ordez ondokoa jarri:

6. artikulua.- Bolondres entitateetako kide diren bolondresen eginbehar hauek dituzte:

a) Beren zerbitzuak beren jardueraren xede diren pertsonetik inolako bereizkeriarik gabe egitea, haien duintasuna, askatasuna, intimitatea eta sinesmenak errespetatuz.

b) Beren lana ahalik eta hobekien egitea, erakundearen sartzeko harturiko konpromisoari atxikiz, haren helburu, xede eta arauteria eta hartzen dituzten jarraibideak onartuz, erakundearen ikurrak eta agiriak behar bezala erabiltzea, eta erakundeak haien eskura jartzen dituen gauzako baliabideak errespetatzea.

c) Bolondres lanean hartu eta ezaguturiko informazioaren isilpekotasuna gordetzea.

d) Beren lanagatik edozein gauzako sariri uko egitea.

e) Proposatzen zaien prestakuntzan kemenez parte hartzea, bolondres lanaren kalitatea hobetuko badu.

Zioak: argitasuna eta koherentzia.

23. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

6. artikuluko a puntuari aurkezturiko emendakina. Honela idatzia geratuko litzateke:

a) Beren zerbitzuak beren jardueraren xede diren pertsonetik inolako bereizkeriarik edo aurreiritzirik gabe egitea, haien duintasuna, askatasuna, intimitatea eta sinesmenak errespetatuz.

Zioak: Legetik bertatik jarduerara modurik onean garatzen dela ziurtatzea.

24. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

6. artikuluko c puntuari aurkezturiko emendakina. Honela idatzia geratuko litzateke:

“c) Behar denean, bolondres-lanean hartu eta ezaguturiko informazioaren isilpekotasuna gordetzea.

Isilpekotasun hori aldeztu aurretik definitu behar da, modu zehatzean, bolondres-lana burutzen duen entitatearen eta hori jasotzen duenaren artean.”

Zioak: Isilpekotasuna modu justuan eta alderdiek ezaguturikoan mantentzea.

7., 8., 9. ETA 10. ARTIKULUEI
AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

25. EMENDAKINA

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

7, 8, 9 eta 10. artikuluen ordezkariak jarri:

7. artikulua.- 1.- Bolondresak dituzten erakundeek, euren forma juridikoa edozein delarik ere, legearen arabera eratuak beharko dute izan, nor-tasun juridiko bereiztuarekin, irabazi-asmorik gabe, behar bezala erregistratuak eta 3. artikuluan definituriko guztion intereseko jardueren multzoan koka daitezkeen egitarauak aurrera eraman beharko dituzte.

2.- Bolondres Erakunde deituko zaie aurreko baldintzak betetzeaz gain nagusiki bolondresen osatuak diren eta ekintza-egitarau gehienak bolondresen bidez burutzen dituztenei.

Bolondresak erakundeetan sartzea idatziz formalizatuko da, behar den akordio edo konpromisoa harturik, harremana altruista dela ezartzeaz gain, eduki hau ere izango duena: eginkizunak, jarduerak, lanaldia eta bi alderdiek egoki jotzen duten guztia, Foru Lege honetako bermeak babestu ahal izateko.

3.- Beti ere, erakundeek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Bolondres-lanaren barne estatutu bat egitea, eta horretan gutxienez bolondresak onartzeko eta baztertzeko irizpideak eta euren eskubide eta betebeharrak adierazi beharko dira, Foru Lege honetan xedaturikoa errespetatuz.

Halaber, bolondresen alta eta baje erregistroa eduki beharko du.

b) Bolondresen prestakuntza, informazioa, partehartzea eta lankidetzak bermatzeko beharrezkoak diren bideak zehaztea, bai erakundean bai bolondresen partehartzea duten proiektu eta egitarauetan.

c) Beren eginkizunak behar bezala burutzeko laguntza eta bitarteko egokiak eskaintzea.

d) Aseguru-poliza bat izenpetzea, bolondresei estaldura bermatzeko diena jarduerako ekintzak burutzean hirugarrenei sor lebizkiekeen kalte eta galerei aurre egiteko. Aseguru horrek erregela-mendu bidez ezartzen diren ezaugarriak eta kapitalak izango ditu.

e) Behar bezalako segurtasun eta higiene baldintzak bermatzea, bolondres-lana gauzatzean buruturiko jarduerak zehatzaren arabera.

f) Bolondres gisa emaniko zerbitzuak frogatzen dituen ziurtagiria luzatzea.

g) Erakundeari batzeko akordioan bolondresekin harturiko konpromisoak betetzea.

h) Euren jardueran izandako gastuak direla-eta dirua itzul dakiela, beti ere hala ezarri baldin bada bolondresak eta erakundeak hitzarturiko baldintzetan, eta hitzarmen horrek aurreikusiriko mugen barnean.

4.- Erakundeek honako eskubide hauek izango dituzte:

a) Bolondresak eginkizunen arabera hautatzea.

b) Euren bolondres-lanarekin zerikusia duten eta beharrezkoak diren informazio eta orientabidea Administrazioari eskatzea eta berarengandik lortzea.

c) Bolondres-lana sustatzeko administrazio-ekintzetan aurreikusiriko neurrietan parte hartzea.

8. artikulua. 1.-Administrazioen eta Erakundeen arteko harremanak lankidetzak, osagarritasun eta partehartze printzipioek arautuko dituzte. Administrazioaren jarduketak beti ere antolamendu eta ekimenerako bolondresen autonomia babestu beharko du.

2.- Administrazio publiko ezberdinen eta erakundeen arteko lankidetzak, lehentasunez, berariazko hitzarmenen bidez instrumentatuko da.

9. artikulua.- Gizarte Ongizate Departamentuaren bidez, Nafarroako Gobernuak honako eginkizun hauek burutuko ditu:

a) Bolondresen Errolda Nagusia kudeatu eta antolatzea.

b) Bolondres-baliabideen katalogo publiko bat prestatzea, Foru Komunitatearen esparruan burutzen diren egitarau ezberdinen edukiak osatuko dituen.

c) Bolondres-lanari buruzko dokumentu-fondo bat eta datu-base bat sortzea dauden fondo ezberdinak koordinatzeko.

d) Bolondres-laneko proiektu zehatz bati ekiten dioten erakundeek eskaturiko aholkularitza teknikoa eta beharrezkoak diren laguntza ematea.

e) Akreditazioa duten entitateen estatutu- eta klausulak Foru Lege honen edukiarekin bat etor daitezela begiratzea.

10. artikulua.- 1.- Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizateko Departamentuan Bolondres Erakundearen Errolda Nagusia eratzen da. Errolda horretan izena eman ahal izango dute 8. artikulua aipatzen dituen Erakundeek, Foru Komunitatearen esparruan jarduerak programatu edo burutzen dituztenean.

2.- Gainera, Bolondres Erakundearen Errolda Nagusia Nafarroako Administrazio Publikoetako beste erregistro eta erroldetan agertzen diren inskripzioek ere osatuko dute, erakunde-mota berari buruzkoak direnean. Horretarako, erregistro eta errolda horien arduradunek aldizka egoki diren jakinarazpenak egingo dituzte.

3.- Errolda hau publikoa izango da, eta horren kopia bat emango zaie Bolondres Erakundeei, hala eskatzen baldin badute.

4.- Inskripzioetan haxe agertuko da: Erakundearen izena, helbidea, jarduketa-eremua, helburu orokorrak, jarduerak eta horretan parte hartzen duten bolondresen kopurua.

Zioak: argitasuna eta koherentzia.

26. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

8. puntuko 1. idazatia aldatzeko emendakina. Honela geldituko da:

1) Bolondres entitateek, onartuak izan eta eta instituzio publikoen laguntza jaso ahal izateko, indarrean dagoen araudiari jarraituko diote, bereziki, funtzionatzeko modu erabat demokratikoari dagokionean; Foru Lege honetan ezarritakoa beteko dute eta baita aplikagarriak diren beste edozein arau, eta erabat errespetatuko dituzte bolondres lana zuzentzen dituzten printzipioak eta bolondresen eskubideak.

Zioak: funtzionamendu erabat demokratikoaren beharra azpimarratu nahi da, instituzio publikoek onartu eta laguntza eman diezaieten

27. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

10. artikuluko 1. idazatiari emendakina. Honela geldituko da:

Bolondres entitateak legaren arabera eraturiko pertsona juridikoak dira, gizarte-egitarauak edo

gizarte-jarduerak egiten dituzte, irabazirik izateko asmorik gabe, bai pertsona, bai gizarte-taldearen alde, edota interes orokorra duten eta lehen aipatu diren beste edozein, eta guzti horretarako gehienbat bolondresak erabiltzen dituztenean.

Zioak: artikulua aurrekoetara egokitu.

28. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

III. kapituluko 10. artikuluko 2. idazatiari aurkezturiko emendakina, kentzekoa.

Hirugarren lerroan "eritasun" hitza kendu.

Zioak. 5. artikuluko 3. puntuko b) idazatiari aurkezturiko emendakinarekin bat etortzeko.

29. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

10. artikuluko, 4. idazatiari aurkezturiko emendakina.

Bolondres entitateek beren jardueretan arlo publikotik zein pribatutik jasoriko laguntzak aitortuko dituzte, gutxienez urteko txostenean.

Zioak: argitasunaren mesedetan

30. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

10. artikuluari aurkezturiko emendakina, puntu bat gehitzekoa.

"4. Bolondres lana egiten duten entitateek oroit-idazki orokor bat egingo dute, gutxienez urtean behin. Oroit-idazki horretan ondokoak adieraziko dira: jardueretako aurrekontu justifikatua, bolondresen zerrenda eta horien atxikipena.

Oroit-idazki hori dagokion departamentura igorriko da."

Zioak: behar bezala ezagutzea zer egiten duten bolondres lanean ari diren entitateak.

11., 12., 13. ETA 14. ARTIKULUEI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

31. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

11, 12, 13 eta 14. artikuluen ordezkariak ondokoak jarri:

11. artikulua.- Sustapenerako neurri orokorrak.

Bolondres-lana sustatu eta errazteko helburuarekin, Nafarroako Administrazio Publikoek, besteak beste, honako jarduketak hauek sustatuko dituzte, euren eskumen-eremuaren barnean eta euren aurrekontu-erabilgarritasunaren arabera:

a) Bolondresak dituzten Erakundearen artean baliabideak eta bitartekoak elkarren eskura jarzea, bereziki prestakuntza eta informazio-bilketari dagokienean.

b) Oro har, antolatutako bolondres-lana indartzeko xedea duten neurriak. Arreta berezia eskainiko zaie erakundearen arteko lankidetzaren proposatzen duten ekintzei, sektore-mailako eta esparru bakarrean eginiko lana gaituz, ekintza horiek lurraldearekiko eta udalerriarekiko lotura dutenean.

c) Urtero, indarrean dagoen Dirulaguntzei buruzko Foru Legeari jarraituz, dirulaguntzetarako deialdiak egitea, deialdi horiei Foru Lege honek eskatzen dituen betekizun zehatzak erantsiz.

d) Bolondres-lanari buruzko ikerketak, azterlanak eta argitalpenak egitea.

e) Erakundeei informazio, dokumentazio, aholkularitza eta laguntza teknikoko zerbitzuak eskaintzea.

f) Bolondres-lana eta berorren baloreak ezagutarazteko informazio- eta berriemate-kanpainak antolatzea, eta, horrekin batera, bolondres-lanaren mezua komunikabideek jasotzen dutela eta bolondresen eginiko lana, oro har, guztiek ezagutzen dutela bermatzea.

g) Laneguna murriztera edo egokitzea bideratutako neurriak, borondatezko zerbitzuak eman ahal izateko.

h) Borondatezko ekintza garatu ahal izan dadin legezko, laneko eta zergen marko egokia bultzatzea.

12. artikulua.- 8.2 artikulua aipatzen dituen bolondres-erakundeak onura publikokoak deklaratu

ahal izango dira, beren forma juridikoak arautzen dituen berariazko legediak aurreikusten duen moduan.

Zioak: argitasuna eta koherentzia.

32. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

11. artikuluari aurkeztutako emendakina. Honek laudatuko da:

“Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoek bolondres-lana eta elkartasuna sustatuko dituzte gizarte zibilaren baitan, informazio-ekin-tzen, bolondres-lana zabaltzeko eta aitortzeko ekintzen, pertsonen partaidetza eta hiritarren laguntza ekonomiko eta sozialaren sustapenaren, jarduketaren kalitatea hobetzeko bolondresen prestakuntza eta, kasuan kasuko programetan, bolondres-entitateendako laguntza teknikoaren bidez. Azkeneko hori, bai gauzatzeko baliabideak, bai administrazio publikoetako langileak lanaldi osoan edo ez osoan aldi baterako utziz, zerbitzu-eginkizunen figurapean -erregulamendu bidez garatutakoari jarraituz-, horien beharra aski den moduan frogatzen bada.”

Zioak: Terminologia egokitzea.

33. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldatzeko emendakina, IV. Kapitulua-11. artikuluari aurkeztutakoa.

11. artikulua beste honekin ordeztzea:

“Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoek bolondres-lanari eta gizartearen zabal-tzen ari den elkartasunari lagunduko diote, altruismoa sustatzeko, honako neurri hauen bidez:

a) Bolondres-lana planifikatzea, gizarteko erakundearen eta bolondresen borondatea eta independentzia errespetatuz.

b) Egitarauak eta ekintzak koordinatuak egon daitezkeen begiratzea, beti ere bolondres-lana buro-kraziaren zamapean jartzea saihestuz.

c) Laguntza tekniko eta ekonomikoa ematea, Foru Lege hau bete dadila errazteko eta bolondres-prestakuntza sustatzeko, gizarteko errealitate aldakorak sortarazten dituen beharrezko anitzei erantzun dinamikoa eman ahal izateko.

d) Baliabide ekonomikoak banatzeko irizpide argiak eta iraunkorrak ezartzea, bolondres-erakundeek burutu beharreko ekintzei laguntzeko egitarau zehatzetarako berariazko hitzarmenen bitartez, eta dirulaguntza orokorrak banatzeagatik euren artean norgehiagoka sortzea ekiditea.

e) Bolondresen egitarauak edo ekintzak behar bezala justifikaturik daudenean, Nafarroako Administrazio Publikoek, aldi baterako, gauzazko baliabideak eta euren departamentuetako langileen lanaldia utzi egingo diete.

f) Gizarte zibilean elkartasuna eta altruismoa sustatzea, borondatezko lankidetzarako ekimenei lagunduz, pertsonak eta baliabideak bolondres-lanean integratuz eta laguntzak beharrian gehiago dituzten sektoreetara bideratuz.

g) Lankidetzak teknikorako edo bestelako entitate publiko zein pribatuetatik datozen baliabide ekonomikoak ekartzeko ekimenei laguntza ematea, eta laguntzarako beharrik handiena duten sektoreei ekitatezko banaketa egin dakiela sustatzea.

Zioak: Beharrezko iruditzen zaigu bolondres-lanean eta premiazko beharrezko unean uneko erantzuna ematen diharduten entitate eta pertsona fisikoei laguntza publikoa hedatzea eta laguntza horren nondik-norakoak argitzea. Bolondres-lanaren sustapenerako eraginkorrako iruditzen zaigu irizpide garbiak izatea, laguntzak bideratzea eta ekimenei laguntzea.

34. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

Hamaikagarren artikuluari aurkezturiko emendakina, gehitzekoa.

Puntu eta apartearen ondoren honela dioen bigarren lerroalde bat gehitzea proposatzen da:

Bereziki sustatuko da jendearen ezagutza bolondresen eginiko lanari buruz eta beren jarduerara esparruari buruz, horrela, dagokien gisan, gizartearen onespina lor dezaten.

Zioak: bolondres lana indartu nahi da bolondresen lanaren onespina publikoaren bidez.

35. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

IV. kapituluko 13. artikuluko 1. idazariari aurkezturiko emendakina, kentzekoa.

Bigarren lerroaldean ondokoa kendu: Kasuan kasuko deialdi publikoen bidez emanen dira dirulaguntzak eta.

Zioak: aurreko emendekin bat datorrelako.

36. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko emendakina. IV. kapituluko 13.1 artikuluari arukezturikoa.

Lerroaldearen bukaeran ondokoa erantsi: programa horiek burutzen dituzten bolondres lanetako erakundeekiko lankidetzak hitzarmenei

Zioak: Jo behar da lankidetzak hitzarmenak egitera bolondres lanetan diharduten erakundeekin, programa berariazkoak egiteko kontusail orokorrak eduki partez, izan ere kontusail horien banaketak desadostasunak sortarazten dituelako gizarte erakundeetan. Gainera, hori dela eta, batzuetan, erakunde horiek gerta daitezke behar larriari erantzun gabe edo abian dituzten programak eten beharrean.

37. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

IV. kapituluko 13. artikuluko 2. puntua aldatzeko emendakina.

“Onuradunak” hitzaren ordean laguntza behar izan eta laguntza jasotzen duten pertsonak jarritzea.

Zioak: Bolondres lanetan ari diren erakundeek beren desadostasuna azaldu dute hitz hori dela eta, eta nahiago dute beharra duten pertsonen buruz hitz egitea eta ez onuradunei buruz.

38. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAK

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

13. artikuluko 3. puntua aldatzeko emendakina. Honela geldituko da:

3. Erregelamendu bidez, laguntza horiek eskuratzeko administrazio betebeharrak garatzeko dira eta erregistroan izena emandako entitate bakoitzaren urtean urteko memoriaren aurkezpenei arautzen, aitorturiko egitarauak eta ebaluazioa zehaztuz.

Zioak: Administrazioak behar den informazioa edukitzeko bidea erraztea.

39. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

IV. kapituluko 14. artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: Zioen azalpenenari buruz proposaturiko emendakinarekin bat etortzeko, eduki bera baitu.

40. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

14. artikulua aldatzeko emendakina. Honela geldituko da:

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseiluaren iritzian oinarriturik, urtero Nafarroako bolondresaren aipamena eginen du bolondres lanean jarduteagatik, bolondres jarduerako gizarte ereduagatik edo bolondres jarduketek oihartzun berezia lortzeagatik nabarmendua den pertsona fisiko edo juridikoaren alde. Erregela-mendu bidez ezarriko dira horretarako betebeharrak.

Zioak: partehartzaileak aintzat hartzea.

15. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

41. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

15. artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: ez da beharrezkoa.

42. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

V. kapituluko 15. artikuluko 1. puntua aldatzeko emendakina.

Artikulu osoa kendu eta horren ordez honela dioen bat jartzea:

Zuzendaritza Batzorde bat sortuko da. Ondoko hauek osatuko dute:

a) Bolondres lanetako programekin zerikusia duten departamentuetako zuzendari nagusiek.

b) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazio-ko bi ordezkariak.

c) Nafarroan garrantzitsuenak diren bi bolondres lanerako erakundeak bi ordezkariak. Horiek Nafarroako Bolondres Lanaerako Kontseiluaren kide gisa sartuko dira.

d) SOS Nafarroako ordezkari batek.

Zioak: Beharrezkoa da toki entitateak, bolondres lanerako erakundeak eta SOS Nafarroa - azkena, Nafarroako larrialdi guztiak zentralizatzen ditu- gai horretan integratzea, benetan eraginkorra izango den bolondres laneko jarduera bultzatuko duen politika orokorra ezartzeko garaian.

43. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

15. artikuluko 1. puntuko bigarren lerroaldea aldatzeko emendakina. Honela geratuko da:

Haren lehendakaritza eta haren idazkaria Bolondres Entitateen Erregistroa kudeatzen duen departamentuari egokituko zaizkio.

Zioak: terminologia zuzena erabiltzea.

44. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

V. kapituluko 15. artikuluko 2. puntua kentzeko emendakina.

c) lerroaren ondoren lehenbiziko lerroaldearen edukia kentzea Urtero... errepikapenak saihesteko.

Zioak: Zuzendaritza Batzordeak era koordinatuan lan egiten badu eta bolondres lanaren jardueran parte hartzen duten agenteen laguntzarekin, sobran dago urteko koordinazio lana edo, edozein kasutan ere, aldizkotasun aldakorra izan beharko du, unean uneko beharren arabera.

**16., 17., ETA 18. ARTIKULUEI
AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**

45. EMENDAKINA

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

16. artikulua kentzeko emendakina.

Proiektuaren 16. artikulua kentzea.

46. EMENDAKINA

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Ordezteko emendakina

Proiektuaren 17 eta 18. artikulua 16 eta 17. artikulua izatera pasatuko dira, hurrenez hurren.

47. EMENDAKINA

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

16, 17 eta 18. artikuluen ordezkariak jar-
tzea:

16. Artikulua.- Gizarteari eta bere erakundeei elkartasun-politiken berri emateko asmoz, Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseilua eratzen da, bolondres-lanaren arloan topagune eta aholkulari-tzarako eta kontsultarako erakunde gisa, eta Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizateko Departamentuari atxikirik egongo da.

17. Artikulua.- Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseiluak honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Txostena ematea, derrigorrez, bolondres-lanean eragin zuzena duten izaera orokorreko arauzko xedapenen aurreproiektu eta proiektuei buruz. Eskatzen denetik hamabost eguneko epean eman beharko da txosten hori.

b) Administrazio Publikoaren proposamenak aztertzea, eta horri bolondres-lana sustatzeko neurriei buruzko beste batzuk proposatzea.

c) Nafarroako Administrazio Publikoari aholkuak ematea eta horiei bolondres-lanaren esparru ezberdinei buruzko proposamen eta ekimenak bidaltzea.

d) Bolondres-laneko programen jarraipen eta ebaluazioari buruzko informazioa jasotzea, baita emandako dirulaguntzei buruzkoa ere.

e) Urtero txosten bat igortzea Foru Komunitateko bolondres-lanaren egoerari buruz.

f) Kontseiluaren Funtzionamendurako Erregelamendua Nafarroako Gobernuari proposatzea.

g) Bere jardueren urteroko oroit-idazkia onestea.

18. Artikulua.- 1.- Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseilua honela osatua egongo da:

a) Lehendakaria.- Gizarte Ongizateko Departamentuko kontseilari den pertsona.

b) Lehendakariordetza.- Bolondres-erakundeak ordezkatzeko dituzten pertsonen artean egingo da izendapena. Eginkizunak erregelamendu bidez zehazten direnak izango dira.

c) Kontseilukide-karguak:

- Nafarroako Gobernuaren bost ordezkari, Zuzendari Nagusi mailakoak, Departamentu hauetatik datozenak: Gizarte Ongizatea, Osasuna, Hezkuntza eta Kultura, Barnea eta Ingurugiroa.

- Udalerrien hiru ordezkari, Nafarroako Udalerrien Kontzejuen Federazioak izendatuak.

- Erakundeen zazpi ordezkari, Bolondresen Errolda Nagusian inskribaturik dauden erakundeen artean hautatu behar direnak, erregelamendu bidez zehaztuko den eta erakunderik txikiak ere egotea ahalbidetuko duen sistema baten bidez.

d) Idazkaritza.- Lehendakaria duenak izendatuko duen eta Gizarte Ongizateko Departamentuari atxikitako legelari batek beteko du postu hau.

2.- Kontseilua osatzen duten pertsonak euren ordezkagarritasunaren arabera hautatuak dira, eta hiru urteko agintaldia izango dute, behin bakarrik berriro ahal izango dutena. Izendatu zituen organoak agintaldia amaitu aurretik kargutik kendu ahal izango ditu.

3.- Aztergai den arloan adituak diren pertsonak ere Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseilura joan ahal izango dute, informazioa edo aholkuak emateko, soilik.

Zioak: Argitasuna eta koherentzia.

48. EMENDAKINA**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**
FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

16. artikuluko 2. puntuari aurkezturiko emendakina.

Ondokoa eranstea proposatzen da: Bere izangaia aurkeztuko du Nafarroako bolondresa izendatzeko eta Gobernuari horri buruzko informazioa emango dio.

Zioak: Nafarroako Bolondres lanerako Kontseiluaren partehartze aktiboagoa lortzea.

49. EMENDAKINA**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**
FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

16. artikuluko 3. puntuari aurkezturiko emendakina.

3. Bolondres Lanerako Departamentuarteko Batzordea eta Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseilua erregelamendu bidez garatuko dira, haien kideak eta haien eginkizunak adieraziko direla, Lege hau onetsi eta gehienez ere 3 hilabete epean.

Zioak: Epe motzera etekin hobe emango duela bermatzea.

50. EMENDAKINA**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

5. kapituluko 16. artikuluen 3. puntua aldatzeko emendakina.

Departamentuarteko Batzordea beharrezan Zuzendaritza Batzordea jartzea.

Zioak: Puntu berari buruzko aurreko emendekin batekin bat etortzea.

51. EMENDAKINA**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko emendakina.

5. kapituluko 16. artikuluen 1. puntuari buruzkoa.

“...organo aholkuemaile” hitzen ondotik aginduzko eta lotesle hitzak gehitzea.

Zioak: Ez dadin gera kontsulta hutsak egiten direla, gero Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseiluak hartzen dituen erabakiak ezertan ere lotu gabe. Kontseilu askok beren kezka azaldu dute haiek erabiltzen dituztelako baina erabakiak hartzeko orduan batere eskurik ez dutelako.

52. EMENDAKINA**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko emendakina, 5. kapituluko 16. artikuluari buruzkoa.

Puntu berri bat eranstea 2. eta 3. puntuaren artean, ondoko testuarekin:

Urtero Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseiluak bere jardueren oroit-idazkia eta Nafarroako bolondresen jardueraren ebaluazioa eginen ditu.

Zioak: Kontseiluak burutzen duen jarduerari, erakundeei eta elkarlanean diharduten bolondresei buruzko iritzia ematea, urtero.

53. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Legeari beste kapitulu bat gehitzeko emendakina. VI. kapitulua gehituko litzateke, Bolondresen partehartzeari buruzkoa, hiru artikuluk osatua, 18, 19 eta 20. artikuluek. Horrek berarekin dakar Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseiluaren osaketa eta helburuak lege bidez garatzea, Proiektuak erregelamendu bidez gara zedila aurreikusten bazuen ere.

VI. Kapituluak.- Bolondresen partehartzea.

18. Artikulua.- Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseilua.

1.- Gizarteari eta bere erakundeei elkartasun politiken berri emateko asmoz, Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseilua eratzen da, bolondreslanaren arloan topagune eta aholkularitzarako eta kontsultarako erakunde gisa.

2.- Kontseilu hori Gizarte Ongizate arloan eskumena duen Nafarroako Gobernuako Departamentuari atxikirik egongo da.

19. Artikulua.- Eginkizunak.

Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseiluak honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Txostena ematea, derrigorrez, bolondres-lanean eragin zuzena duten Nafarroako Administrazio Publikoen izaera orokorreko arauzko xedapenen aurreproiektu eta proiektuei buruz. Eskatzen denetik hamabost eguneko epean eman beharko da txosten hori.

b) Bolondres-lanaren oinarrizko beharrianak detektatzea eta aztertzea.

c) Nafarroako Administrazio Publikoei aholkuak ematea eta horiei bolondres-lanaren esparru ezberdinei buruzko proposamen eta ekimenak bidaltzea. Baita ere, bolondres-lanaren egitarauak diruz laguntzeko garaian lehentasunezkoak jo litezkeen irizpideak proposatzea.

d) Bolondres-lana sustatzeko neurriei buruzko azterketak egin eta Administrazioei proposamenak igortzea.

e) Bolondres-laneko egitarauari dagokien Nafarroako Administrazio Publikoek eginiko jarraipen eta ebaluazioari buruzko informazioa jasotzea, baita emandako dirulaguntzei buruzkoa ere.

f) Urtero txosten bat igortzea Foru Komunitateko bolondres-lanaren egoerari buruz.

g) Elkartasunarekin zerikusia duten partehartze-organismoetan gizarte-agentek egon daitezela sustatzea.

h) Kontseiluaren Funtzionamendurako Erregelamendua Gobernuari proposatzea.

i) Bere jardueren urteroko oroit-idazkia onestea.

20. Artikulua.- Osaketa.

1.- Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseilua honela osatua egongo da:

a) Lehendakaria: Kontseilua atxikirik dagoen departamentuko Kontseilaria edo horrek eskuordetzen duen pertsona.

b) Lehendakariordea.- Bolondres-erakundeak ordezkatzeko dituzten pertsonen artean hautatuko da. Lehendakariaren eginkizunetatik erregelamendu bidez zehazturikoak eskuordetuko zaizkio.

c) Kontseilukideak:

Bolondres-laneko egitarauarekin zerikusia duten departamentuetako zuzendari nagusiak.

Toki-entitateen hiru ordezkari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak izendatuak.

Foru Komunitatean ordezkagarritasunik handiena duten sindikatuetaordezkariak.

Bolondresen erakundeek hamar ordezkari, Bolondresen Erakundeek Erregistroan inskribaturik dauden erakundeek artetik hautatu behar direnak, erakunderik txikiak ere egotea ahalbidetuko duen sistema baten bidez. Ordezkari horietatik guztiak edo batzuk ez baldin badira izendatu, Kontseilu honetako Lehendakariak izendatuko ditu.

2.- Kontseilua osatzen duten pertsonak euren ordezkagarritasunaren arabera hautatuak dira, eta hiru urteko agintaldia izango dute, behin bakarrik berriro ahal izango dutena. Izendatu zituen organoak agintaldia amaitu aurretik kargutik kendu ahal izango ditu.

3.- Aztergai den arloan adituak diren pertsonak ere Kontseiluaren bilkuretara joan ahal izango dute, informazioa edo aholkuak emateko, soilik.

**XEDAPEN GEHIGARRIARI ETA
XEDAPEN IRAGANKORRARI
AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**

54. EMENDAKINA

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri eta iragankorren ordezkari honako xedapen iragankor hauek jartzeko emendakina:

Lehenengoa.- Nafarroako Gobernuak Bolondresen Errolda Nagusia arautu arte, erakundeek inskribatzen segituko dute arloan eskumena duten departamentuen menpeko erregistroetan.

Bigarrena.- Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseiluak, gehienez ere Foru Lege hau indarrean sartzen denetik kontatuz urtebeteko epean, Kontseiluaren beraren barne funtzionamendurako erregelamendua onetsiko du.

Hirugarrena.- Erakundeak Foru Lege honen edukiei egokitzeko epea urtebetekoa izango da, Lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

Laugarrena.- Lege honetako 16.1.c artikuluan aurreikusitako hautaketa-prozesua onetsi bitartean, erakundeek ordezkari Nafarroako Gobernuak zehaztuko du.

Zioak: Argitasuna eta koherentzia.

55. EMENDAKINA**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL****FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA**

Lehenengo Xedapen Gehigarriari aurkezturiko emendakina. Hona testua:

Halaber, funtzionario diren langileak zerbitzu-eginkizunetan daudela joko da baldin eta hilabete-ko edo gutxiagoko epeetarako, urtean gehienez ere hiru epe izanik, euren administrazioak bolondres-entitateei laguntza teknikoa emateko baime-na ematen baldin badie.

Zioak: Funtzionarioek lankidetz-ekintzetan parte har dezaten erraztea.

56. EMENDAKINA**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL****FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA**

Bigarren Xedapen Gehigarriari aurkezturiko emendakina. Hona testua:

“Nafarroako Gobernuak, gehienez ere Foru Lege honek indarra hartu eta hiru hilabete-ko epe-aren barrenean, Bolondres Entitateen Erregistro-ko erregelamendua onartuko du, eta laguntza ekonomikoak, entitateendako laguntza teknikoa eta Nafarroako Bolondresaren urteroko aipamena eskuratzeko bidea, eta Bolondres Laneko Departamentuarterako Batzordeko eta Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseiluko erregelamenduak ere bai”.

Zioak: Foru Lege hau hobekien eta azkarren gara dadila ziurtatzea.

ZIOEN AZALPENARI
AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

57. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Ordezteko emendakina.

“Justifikazio” guztia Legearen izpiritua jasotzen duen Zio Azalpen honekin ordeztua, deskribapen hutsezko alderdiak alde batera utziz:

Zioen Azalpena

I. Indarrean dagoen Espainiako Konstituzioak 9.2 artikuluan jasotzen duenez, botere publikoen betebeharra da beharrezkoak diren baldintzak

sustatzea banakakoaren eta berau sartzen den taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen; horien betetasuna galarazten edo zailtzen duten eragozpenak kentzea eta politika, ekonomia, kultura eta gizartearen arloan hiritar guztiek parte har dezaten erraztea.

Era berean, Europako Agiri Sozialak, pertsona guztiei gizarte-ongizateko zerbitzuez baliatzeko eskubidea aitortuz, zerbitzu horiek sortzeko eta mantentzeko banakakoek eta erakundeek parte har dezaten bultzatzen du.

Aurreko guztia ildotik, Europako Kontseiluak eta Europako Parlamentuak, Erabaki eta gomendioetan, neurri orokorrak taxutu dituzte hiritarrak jabetu daitezen gizartearen arazoez eta horiek konpontzeko bolondres-lanak, aisialdia modu konstruktiboan erabiliz eta gizarte-ekintzan parte hartuz, egin dezakeen ekarpenaz.

Aipaturiko gomendio eta Erabakiek adierazten dute beharrezkoa dela Estatuak zehaztea, ongizate-politikak taxutzean, bolondres-erakundeek eta administrazio publikoen menpeko zerbitzuek bete behar dituzten berariazko eginkizunak, eta bermatu beharra dagoela profesionalen eta bolondresen beraien arteko lankidetz-azpiegitura publikoak guztiek erabiltzea eta prestakuntza-programak garatzea; hori guztia, eskura dauden baliabideak osagarriak izan daitezen.

II. Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari Buruzko Lege Organikoak (LORAFNA) berritu egin ditu Nafarroaren eskumen historikoak, Nafarroako gizartearen kezkatzen duten alderdi guztiei buruzkoak direnak. Horien artean dago legeintzako eta antolamenduko eskumena, hiritarrek Foru Komunitateko ongizatea lortzeko parte hartzeari dagokiona.

Foru Erakundeek, borondatezko lanak agerian uzten duen elkartasunaren inguruan Nafarroako gizarteak duen jarrerari erantzun behar diotenez gero, talde-ahalegin altruista hori honako honetara zuzendua egon dadin beharrezko diren bitartekoak eskaini behar dituzte: guztion onurara eta demokrazia sakontzera, horiek hiritarren partehartze tinkoaren eta elkartasunezko jarreraren sustapenaren ondorio izanik.

Hori dela-eta, 1997-2000 eperako Nafarroako Gerontologia Planak, lehenengo erabaki-proposamenen, Bolondres-lanari buruzko Foru Lege Proiektu bat aurkeztera premiatzen du Nafarroako Gobernuak.

III. Bolondres-lanaren fenomenoaren etengabeko hazkuntza pairatzen ari da, Elkartasun printzipio-

an oinarrituriko ongizate-gizartea garatzearen ondorioz. Administrazioaren eta partikularren arteko harremanak taxutzeko sortu zen printzipio hori, gaur egun, partikularren arteko harremanetara ere hedatu da. Horiek parte hartu nahi dute gizartearen aurrerapenean eta Ongizatearen Estatuaren sendotzean, eta beharrezkoa da legezko oinarri batzuk egotea, horietatik abiatuz hiritarrek modu solidarioan jardun ahal izan dezaten. Bolondresen eskuzabaltasunak eta beren burua besteren esku- ra jartzeak berariazko arautze juridikoa eduki behar dute, jarrera hori mugatu edo murriztu gabe antolamendu bat ezarriko duena bolondresen erki- degoari ematen dizkieten zerbitzuei dagokienean, aldi berean horien jardura sustatuz.

Bestalde, bolondres-erakundeek erkidegoari ematen dioten zerbitzu itzela kontuan izanik (bolondresen ekimen, ardura eta elkartasunerako izpiritua garatuz, guztion interesaren alde osagarri gisa modu eraginkorrean jardunez -are ekimena izanik, batzuetan-, gizartearen baitan bitartekari- tza, elkartruke eta orekarako eginkizun ordezkae- zina burutuz), beharrezko gertatzen da erkidegoa- ren jardunean erakunde horiek partehartze handiagoa izan dezaten bultzatzea, eta horretara- ko legeintzako prozedura argiak eta eraginkorrak ezarri behar dira.

Bolondres-lanari buruzko Lege honek agerian uzten du, modu orokorrean, Nafarroako Adminis- trazioak bolondres-lana sustatzeko duen konpro- misoa, gizartegintzarako Nafarroako hiritarrek duten eskubidean sakonduz eta Askatasuna, Ber- dintasuna, Aniztasuna, Pertsonaren Duintasuna eta berezko dituen eskubide bortxaezinak bezala- ko konstituzio-baloreak sendotuz.

Halaber, 9/96 Legeko Hirugarren Xedapen Gehigarriak indarra hartzearen ondorio nabarmen gisa, posible egiten da Nafarroako gazteek bolon- dres gisa egin dituzten zerbitzuen aitopenetik onura ateratzea eta zerbitzu horiek Soldadutzaren edo Soldadutzaren Ordezko Zerbitzuaren iraupe- nari begira baliozkotzea.

58. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena testu honekin ordeztzea:

Nafarroako gizartea partehartze-maila altua azaltzen ari da izaera oso desberdineko gizarte- beharrazanez bolondres-lan desinteresatuaren

bitartez erantzun ahal izateko. Hori etengabe hedatzen ari den elkartasun-agerpen bat da.

Eztabaidaezina da hainbat entitate zerbitzuak ematen aritu dela gizarte-problema konpontzeko, Administrazioaren ekintza baino lehenagotik, aldi berean sentsibilizatze-lana ere eginez; lan horrek, bolondres-laneko gizarte-ekimen batean gauzatuz hasitakoa ondoren Administrazioak bere gain har- tzea eragin du, hainbat kasutan.

Bolondres-lanean gauzaturiko hiritarren parte- hartzea gobernu kanpoko erakundeek bideratzen dute. Horiek, azken urteotan, erkidegoa eraiki eta gara dadin eta gizarte-aldaketa gerta dadin lagun- tzen ari dira, eta funtsezko eginkizuna betetzen dute beren arduragai diren problema ebatzeari dagokienean; behartsuenekiko gizarte-konpromi- soaren eredu bilakatu dira.

Gobernu Kanpoko Erakundeek jardura beren elkartasunezko izaeran eta bolondresen ekintzan oinarritua dago, eta arduragai dituzten arloetan gero eta eginkizun espezializatuagoa betetzen ari dira. Interes orokorreko jarduerak eta bazterketaren eta kanpo uztearen aurkako borro- karako -horren kausa edozein dela ere- burutzen dituzten jarduerak ere, bolondres-lanaren lagun- tza-izaera gaintu arazi diete, ekintza publikoaren ordezkio edo osagarri diren beste arlo batzuei aurre eginez, benetako aukera-berdintasunerantz aurrera doan gizarte bat lortu ahal izateko.

Bolondres-lanean gauzaturiko borondatezko ekintzak eta hiritar-erantzunak politika publikoen taxutze eta burutzean ere parte hartu ahal izatea eskatzen dute, haiek beren egitarauaren garapen sarritan eraberritzaileari esker lortu duten ezagu- tza eta esperientzia ekarriz.

Zuzenbidezko Gizarte Estatu Demokratikoan, eta Espainia hori izanik, askatasuna, justizia eta berdintasuna ordenamendu juridikoko balio gore- nak dira. Gainera, botere publikoei dagokie beha- rrezkoak diren baldintzak sustatzea banakakoaren eta berau sartzen den taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen; horien betetasuna galarazten edo zail- tzen duten eragozpenak kentzea eta politika, eko- nomia, kultura eta gizartearen arloan hiritar guz- tiek parte har dezaten erraztea. Konpromiso horrek bere barnean hartu behar du gizarte- eta ekonomia-aurrerapenerako eta errentaren bana- keta bidezkoagorako baldintzak sustatzea.

Foru Lege honen bitartez, Nafarroako Foru Komunitateak, bere eskumenez baliatuz, hiritarrek beren interes eta motibazioei hobekien egokitzen zaizkien bideen bitartez parte hartzeko duten

askatasuna bermatzen duen markoa ezartzen du, bolondres-lana sustatuz eta horri bultzada emanez, eta Nafarroako Administrazio Publikoen laguntza bermatuz.

Halaber, Lege honek bolondresen eta horiek parte hartzen duteneko Erakundeen arteko harremanak arautzen ditu, eta horien ahalmena, eza-gutzak eta ardura publikokoak diren jarduketekiko betetzen duten funtzio osagarria aitortzen du.

Guztiak onarturiko kontzeptuen bidez definituriko bolondres-ekintza Legeak aintzatetsi egiten du, duen izaera altruista eta elkartasunezkoa eta bere doakotasuna -ordainduriko zerbitzuak emateko edozein modutatik ezberdintzen duena- azpimarratuz; alderdien askatasuna aintzatesten du eta beharrezkoa den koordinazioa posible egiteko bitartekoak eskaintzen ditu. Kanpoan uzten ditu adiskidetzagatik edo ahaidetasun-lotura egoteagatik eginiko han-hemenkako jarduketak.

Zioak: Argitasuna eta koherentzia.

59. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

Zioen Azalpeneko I. puntuko 1. lerroaldea eza-batzeko emendakina.

Zioak: Bolondres-lanari buruzkoa den eta Nafarroari dagokion Lege bat justifikatzen hasteko gaur egun Estatuan indarrean dagoen Konstituzioa aipatzea beharrezkoa ez dela eta are eztabaidagarria izan daitekeela iruditzen zaigu.

60. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

Zioen Azalpenari gehitzeko emendakina, I. puntuko 1. lerroalde gisa:

“Gure munduan justizia eta ekitatea hedatzea lor dadin elkartasunez lankidetzan jarduten saiatzen den hiritarren multzo batek gero eta partehartze handiagoa izango duteneko egoera bat formalizatzea funtsezkoa da gure nafar gizarterako. Eta horrexegatik eratu da “Bolondres-lanari buruzko Legea” izeneko hau; hemendik aurrera, euren borondatez eta modu solidarioan ekarpen bat egin nahi dutenen jarduerak normalizatu egingo ditu.”

61. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

Zioen Azalpeneko I. puntuko 2. lerroaldea honako honekin ordeztuko emendakina:

“Beraz, Nafarroako gizarteak Lege hau behar du, hiritarrek gizarte zibilaren bitartez duten partehartze gero eta handiagoa arautzeko.”

Zioak: Horren beharraz modu orokorrean diharduen aldaketak zuzenagoa dirudi.

62. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

Zioen Azalpeneko I. puntuko hirugarren lerroaldea aldatzeko emendakina.

“Nafar asko eta asko nabarmendu da gizarte-justiziaren aldeko kontzientziazio-maila altua iza-teagatik, eta euren ekarpena egin diete beste herriei, erlijiozko eta elkartasun laikoazko ikusmol-de ezberdinetatik ere.”

Zioak: Formulazio honek egokiagoa dirudi.

63. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

Zioen Azalpeneko I. puntuko 4. lerroaldea aldatzeko emendakina. Honela geratuko litzateke:

“Egun pertsona eta kausa sozialekiko elkartasunak zabalpen handia lortu du eta horretan gure gizarteko hainbat arlok parte hartu du.

Gure Komunitatean nabarmen dira gobernu kanpoko erakundeetan diharduten bolondresen kopuru handia eta partikularren edo Administrazio Publikoen diru-ekarpenak garapenerako lankidetzaren horretan”.

Zioak: Testu hau egokiagoa da.

64. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

Zioen Azalpeneko III. puntuko 1. lerroaldea aldatzeko emendakina. Honela geratuko litzateke:

“Foru Lege honek honako ezaugarri hauekin definitzen du bolondres-lana: elkartasuna, doakotasuna, askatasuna eta elkartegintza. Ez da bolondres-lantzat jotzen gauzazko sarien truk edo beharturik egiten dena.”

Zioak: Egokiago dirudi Legean bertan definitzeak, “literaturan” aurkitzen diren eta antzekoak diren balizko definizioetara jo gabe, harrigarria gerta bailiteke.

65. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

Zioen Azalpeneko III. puntuko 3. lerroaldea aldatzeko emendakina. Honela geratuko litzateke:

“Ulertzen da bolondresak erantzukizunez eta etenik gabe hartzen dutela konpromisoa. Horregatik sartzen da Foru Lege honetan bolondres-entitatei atxikitzeko erabakia agiri baten bidez gauzatu beharra, non bolondresaren eskubideak eta haren jarduketaren iraupena eta tinkotasuna agertuko baitira. Jarduera hori uzten bada, pentsatzekoa denez, ez dago inolako zigorrik bolondresarendako”.

Zioak: “Axolagabekeria horregatik kritika morala” egiteari buruzko aipamen hori deigarria da, kon-tuan izanik bolondres-lanaren izpirituan zerbitzua emateko edo ez emateko askatasuna dagoela.

66. EMENDAKINA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

Gaztelerazko bertsioan, Zioen Azalpeneko III. puntuko 4. lerroaldea aldatzeko emendakina. Honela geratuko litzateke: “La mejora de la calidad es una de las características más importantes de los programas y actividades de las entidades de voluntariado, que introduce esta Ley Foral. La persona o la causa con la que se solidariza la persona voluntaria tiene derecho a recibir esa prestación con la mayor garantía de continuidad y de calidad, por lo que las entidades de voluntariado, con el apoyo de las Administraciones Públicas, velarán para que los voluntarios y voluntarias reciban la formación suficiente para ello”.

Zioak: Sexista ez den zehaztaperen honek ego-kiagoa dirudi.

67. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Zioen Azalpeneko I. zatia aldatzeko emendakina.

Bigarren lerroaldea (“Espainiako gizarteak... Ongizatearen Gizartera iragateko bidea”) ezabatzea, honako honekin ordeztuz:

“Gure gizartearen demokratizazioaren ondorioz, hiritarren ardua sozio-politiko iratzarri egin da, eta horrek kontzientiazio handiago bat izatera eramán gaitu, elkartasunean eta altruismoan oinarrituriko ekintza arinagoaren bitartez gizakien eta gizartearen egoeran

justiziazkoak diren gutxieneko lorpen batzuk edukitzeko gizabanakoak eta taldeak duten egin-kizunari buruz. Bolondres-ekintza osagarria da; “Gizarte Ongizatearen Estatuak” babesteko erantzukizuna dauka hiritarren zerbitzura dauden erakunde publikoekin batera, eta hiritarren eta erakundeen arteko haustura ekiditen du, gizarte-egoera zailak arintasunez leuntzeaz gain”.

Zioak: Nafarroako IU/EBk desegoki eta kezka-garri jotzen du gizarte-helburuak botere publikoetatik lortu ezin direlako ideia adieraztea Legean. Gizarte-zerbitzuen arloan Estatuak halakotzat duen erantzukizunari aurre egin nahi ez izateko eta erantzukizuna “gizarte zibila” delakoari emateko ahailegin bat dela iruditzen zaigu. Bidezkoago deritzogu gizarte-helburuak lortzeari dagokionez Estatu eta gizartearen erantzukidetasunari buruzko ideia adierazteari.

68. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Zioen Azalpeneko I. zatia aldatzeko emendakina.

Seigarren lerroaldea. “Sustengu tekniko eta ekonomikoa ematera”-ren ondoren, lerroaldearen gainerakoa honekin ordeztu: “bolondres-lana mantendu ahal izateko, bolondres-lanaren kalitatea hobetzen duten ikastaroak, ikastetxeak, mintegiak eta jardunaldiak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeekin lankidetzan arituz lorturiko bolondres-prestakuntzaren bitartez”.

Zioak: Bolondresen prestakuntzari bitarteko teknikoekin eta baliabide ekonomikoekin laguntza

ematea beharrezkoa iruditzen zaigu. Hala ere, eraginkorrago iruditzen zaigu prestakuntza duten eta jarduten duten bolondresak mantentzea, giza-banakoaren eta taldearen jarrera baten lekukotasun gisa; hain zuzen, berez eta bere indar hutsez gure gizartean elkartasunaren eta altruismoaren sustapena ekarriko duen jarrera bat.

69. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Zioen Azalpeneko II. zatia aldatzeko emendakina.

Lehenengo lerroaldea ezabatzea eta horren ordez honako hau jartzea:

“Foru Komunitatearen esparruan bolondres-lana izaten ari den hedapena arautzeko eta hiritarrak ukitzen dituzten jarduketa-arlo guztietan erantzuna eman ahal izateko gure gizarteko estamentu guztietan elkartasuna sustatzeko dagoen beharretik sortu da Bolondres-lanari buruzko Foru Legea. Erakunde publikoekin izan beharreko elkartasunezko erantzukidetasuna bolondres-erakundeetan integratu beharra dago, partehartzearen aldeko bolondres-funtzionamendu demokratikoaren bitartez”.

Zioak: IU/EBn pentsatzen dugu etorkizunean interesgarriagoa izan daitekeela bolondresen gizarte-jarduketari osotasuneko eta zabaltasuneko zentzua ematea, horren zioak jatorri duen Gerontologia Planaren agindura mugatzea baino. Bolondres-lana hirugarren adinekoei zaintzeko beharraren eraginez sortua delako itxura eman dezake.

70. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Zioen Azalpeneko III. zatia aldatzeko emendakina.

Bosgarren lerroaldea. “Bolondres-lana iradokitzen duten hastapenak”-en ondoren, lerroaldearen gainerakoa honekin ordeztu: “honako honetan oinarritzen dira: askatasunez, sari ekonomikorik gabe eta irabazi asmorik gabeko gizarte-erakundeetan buruturiko gizarte-ekintzan, pertsona guztiei gutxieneko bizi-kalitaterako eta gizarte-justiziarako eskubidea bermatu ahal izateko, horien beharria-nei, gizarte-bazterketako edo giza-sufrimenduzko baldintzei elkartasunezko erantzuna emanez”.

Zioak: Oso beharrezko deritzogu bolondres-lanaren hastapen iradokitzaileak azpimarratzeari, baina ez dugu egokitzen jotzen hastapenak Zioen Azalpenean nahastea erregistroa edo arlo juridikoa bezalakoak diren beste hainbat konturekin.

71. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko emendakina, Zioen Azalpeneko III. zatia aurkezturikoa.

Seigarren lerroaldea kentzea.

Zioak: Kontsulta egin zaien bolondres-erakunde guztiek eskatu dute lerroalde hau kentzea, horien lana sari edo aipameneren bidez aintzat hartzeak, bolondres-lanaren altruismo-izpirituarekin kontraesanean egoteaz gain, norgehiagokakutsua sortzen duela pentsatzen dutelako, lortu nahi dena kontzientzia kritikoa eta elkartasunezko jarrera sortzea izanik.

Bolondres lanari buruzko Foru Lege proiektua

OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOAREKIKO EMENDAKINA

Nafarroako Parlamentuak, 1998ko otsailaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak Bolondres lanari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoarekiko emendakina baztertzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, proiektu hori Gizarte Gaietako Batzordera igorri da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 26an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

F saila:
GALDERAK

Ebazpena, Nafarroako Gobernua premiatzeko Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 29. artikulua aldatzeko prozedurari ekin diezaion**OSOKO BILKURAK ONETSIA**

1998ko otsailaren 25ean egindako Osoko Bilkuran hurrengo ebazpena onetsi zen: Ebazpena, Nafarroako Gobernua premiatzeko Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 29. artikulua aldatzeko prozedurari ekin diezaion. Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 26an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena, Nafarroako Gobernua premiatzeko Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 29. artikulua aldatzeko prozedurari ekin diezaion

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 29. artikulua aldatzeko behar diren erabakiak har ditzan, legez dagokion bezala, betiere 1998ko apirila baino lehen, Lehendakaria hautatzeko prozedura automatikoko sistema kenduz eta horren ordez gehiengoaren sistema bat ezarritz.”

IPARLAT, SAri buruzko Ebazpena**OSOKO BILKURAK ONETSIA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, “IPARLAT, SAri buruzko Ebazpena”, 1998ko otsailaren 25ean egindako Osoko Bilkuran onetsia, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 26an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

IPARLAT, SAri buruzko Ebazpena

“Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernua premiatzen du gehienez hilabete bateko epean Nafarroako Parlamentura txosten bat igor dezan, dagokion organoan eztabaidatzeko. Txosten horretan garatu behar dira, 1997ko maiatzaren 13an Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak IPARLAT, SA eta elkar-tutako abeltzainei buruz onartutako mozioaren edukia betetzeko, egin dituen jarduketak, eta baita ere txosten horretatik deribatutako ondorio eta proposamenak.”

Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzeko eskola-testuliburuaren doakotasunak ekarriko duen kostuari buruzko azterlana aurkez dezan

OSOKO BILKURAK BAZTERTUA

Biltzarrak, 1998ko otsailaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko mozioa baztertu zuen: «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzeko eskola-testuliburuaren doakotasunak ekarriko duen kostuari buruzko azterla-

na aurkez dezan. Mozio hori 1998ko otsailaren 10eko 12 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 26an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalari atxikitzeko Adierazpen politikoaren berrespena

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 1998ko otsailaren 25ean eginiko bilkuran, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalari atxikitzeko Adierazpen politikoa berretsi zuen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 26an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalari atxikitzeko Adierazpen politikoaren berrespena

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak,

Gogoan edukiz 1948ko abenduaren 10ean Nazio Batuen Biltzar Nagusiak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala aldarrikatu zuela, Nazio Batuen Erakundeko giza eskubideen sistemaren oinarria dena.

Gogoan edukiz Adierazpen horretako 30 artikuluek pertsona guztien ongizaterako funtsezkoak izaten jarraitzen duten eskubide zibil, kultural, ekonomiko, politiko eta sozialak ezartzen dituztela.

Adierazpenean jasotako eskubideen aplikazioa mundu osoan errealitate bihur dadin, eskubide horien unibertsaltasunarekin duen konpromiso

sozial eta politikoa mantendu eta areagotzeko beharraz jabeturik.

Nazio Batuen Biltzar Nagusiak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala onestearen berrogeita hamargarren urteurrena dela-eta, honako Adierazpen Instituzional hau berretsi du:

1.- Nafarroako Parlamentua Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren osotasunari eta eskubide horiek garatzen dituzten nazioarteko Hitzarmen eta Akordioei atxikitzen zaie.

2.- Nafarroako Parlamentuak dei egiten dio Nafarroako gizarteari Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren osotasuna aplikatzeko konpromiso irmoari tinko euts diezaion.

3.- Nafarroako Parlamentuak Adierazpen Instituzional hau honako hauei igortzea erabaki du:

Nazio Batuen Erakundeko Idazkari Nagusiari.

Espainiar Estatuko Gobernuko Lehendakariari.

Kongresuko eta Senatuko lehendakariei.

Autonomi erkidegoetako lehendakariei.

Autonomi parlamentuetako lehendakariei.

Nafarroako udal eta kontzejuetako alkateei.

Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatuz komunikazioa bidal diezaion Parlamentuari, gure Komunitatearen egoera politikoaren diagnostikoarekin

FORU ARAUBIDEKO BATZORDEAK BAZTERTUA

1998ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Foru Araubideko Batzordeak «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztutako hurrengo mozioa baztertu zuen: Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatuz komunikazioa bidal diezaion Parlamentuari, gure Komunitatearen egoera politikoaren diagnostikoarekin.

Mozio hori 1997ko abenduaren 29ko 88 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 26an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzeko Justizia Ministerioarekin beste hitzarmen bat negoziatzean, soldadutzaren ordezkoko zerbitzuari atxikitako jarduerari buruz

GIZARTE GAIETAKO BATZORDEAK BAZTERTUA

1998ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Gizarte Gaietako Batzordeak «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztutako hurrengo mozioa baztertu zuen: Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzeko Justizia Ministerioarekin beste hitzarmen bat negoziatzean, soldadutzaren ordezkoko zerbitzuari atxikitako

ko jarduerari buruz. Mozio hori 1998ko otsailaren 10eko 12 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 26an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzeko Euskal Autonomi Erkidegoarekin Lankidetzaren Hitzarmen berria egin dezan

ATZERA BIDLITAKO MOZIOA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 1998ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztu zuen mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzeko Euskal Autonomi Erkidegoarekin Lankidetzaren Hitzarmen berria egin dezan, atzera bidali duela jakitun dagoela

adieraztea. Mozio hori 1998ko otsailaren 2ko 10 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 26an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzeko N-121 errepideko gasolindegia- giaren aurrean, Tafallako irtenbidean, belarri bat eraiki dezan

ATZERA BIDLITAKO MOZIOA

Nafarroako Parlamentuko Herrilan eta Azpieg-
rurak Batzordeak, 1998ko otsailaren 24an eginda-
ko bilkuran, erabaki zuen «Nafarroako Demokra-
ten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztu
zuen mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzeko
N-121 errepideko gasolindegia-aren aurrean, Tafa-
llako irtenbidean, belarri bat eraiki dezan, atzera

bidali duela jakitun dagoela adieraztea. Mozio hori
1998ko otsailaren 2ko 10 zk.ko Nafarroako Parla-
mentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 26an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena, Nafarroako Gobernua premiatzeko farmazia-laguntzari buruz- ko Foru Lege proiektua bidal dezan

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Osasun Batzordeak, 1998ko otsailaren 26an
egindako bilkuran, hurrengo ebazpena onetsi
zuen: Ebazpena, Nafarroako Gobernua premia-
tzeko farmazia-laguntzari buruzko Foru Lege
proiektua bidal dezan. Biltzarreko Erregelamendu-
ko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako
Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin
agindu da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 27an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena, Nafarroako Gobernua premiatzeko farmazia-laguntzari buruzko Foru Lege proiektua bidal dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-
nua premiatzen du bi hilabeteko epean farmazia-
laguntzari buruzko foru lege proiektua bidal die-
zaion Biltzar honi, Osasun Batzordean
eztabaidatzeko.

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAUEMAILEAK

5/1998 Foru Dekretua, urtarrilaren 19koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena

OSOKO BILKURAK BERRETSIA

1998ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 5/1998 Foru Dekretua, urtarrilaren 19koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, berretsi zuen. Dekretu hori 1998ko otsailaren 13ko 19

zk.ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 1998ko otsailaren 10eko 12 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 26an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	---